

Fleur
JAEGGY

MIREN IRIARTE eta FERNANDO REY

PROLETERKA



L I T T E R A T U R A U N I B E R T S A L A

erein & igela

FLEUR JAEGGY

Proleterka

Miren Iriarte eta Fernando Rey

Itzultzaileak

erein & *igela*



FLEUR JAEGGY (1940)

HITZAURREA

Fleur Jaeggy italieraz idazten duen idazle suitzar bat da. Idazle bakartia, eta literatura soila, hotza egiten duena. Esaldi laburrak, ia aforismoaren mailakoak: hitz gutxi eta esanahi sakona. Hori dugu emakume honen ezaugarrietako bat. Badirudi ikurtzat «Isiltasuna ezin badun/k hobetu, hago isilik» edo gisako zerbait hartua daukala beretzat. Benetan aipagarria da Fleur Jaeggyren lehenbiziko lanaren izenburua *Il ditto in bocca* izatea: aho aurrean hatza jarriz isiltzeko adierazten duen keinu hori ikurtzat hartua du, nonbait.

Laurogei urtera laster iritsiko den emakume hau goi-mailako klaseko familia batean sortu zen Zurichen, eta alemanaren, frantsesaren eta italieraren erabiltzaile gisa hazi bazen ere, italieraz idatzi du bizitza osoan, hizkuntza horren aldeko hautua eginda idazle gisa. Esan behar da ezen, bere ikasketak bukatuta, Erromara joan zela bizitzera, eta Adelphi argitaletxean lanean urte batzuk egin ondoren, Roberto Calassorekin ezkondu zela, argitaletxe horretako editore eta gerora presidentearekin. Bertan argitaratu ditu bere lan guztiak, horien artean itzulpen batzuk, hala nola Marcel Schwoben *Bizi*

*alegiatzkoak*¹ eta Thomas De Quinceyren *Immanuel Kanten azken egunak*.

Oso gutxitan eman ditu elkarrizketak, esan beharrekoa bere liburuetan dagoela iruditzen baitzaio, nonbait, eta badirudi literaturaren inguruko promozio eta zalapartatik urrun ibili nahi duela, Salingerrek, Pynchonek edo –gugandik hurbilago– Elena Ferrantek egin duten bezala. Jarrera temati hori are nabarmenagoa da kontuan hartzen badugu Adelphi argitaletxean izan duen lekuak nahi adina aukera eman diola eta ematen diola gaur egun ere bere lanentzako bozgorailu gisa erabiltzeko. Eta hori ere egin du, noski, baina ezagutzen dutenek esaten dute «bakarti amorratua» dela, «oso adiskide gutxi dituen, oso bakanetan ateratzen dena eta elkarrizketa ia guzti-guztiei uko egiten diena». Etxean, «Jaeggyk armazoi berdeko Hermes idazmakina batean idazten omen du, zeinari piano bati bezala hurbiltzen omen zaion. Praktikatzera. Eskalak egitera».

Jaeggyren ustez, bakoitzak bere hustasunean egon beharko luke. Hustasuna, berarentzat, isiltasuna da, harremanik eza. Hustasuna etengabe ureztatu beharreko landarea omen, haren iritziz. Heriotzaganako nolabaiteko samurtasun bat darie Jaeggyren lanei, bere aurreko zenbait idazleren kasuan ez bezala –Thomas Mann, Arthur Schnitzler–, heriotzan suntsipen eta desegite hutsa baizik ez baitzuten ikusten haiek. Jarrera garbiagoa

1 *Bizi alegiazkoak*, Literatura Unibertsala, Ibaizabal, Zornotza, 2002.

sumatzen diogu idazle suitzarrari: heriotza fidagarriagotzat dauka bizitza baino, heriotzak, bizitzak ez bezala, ez baitu ezeren promesik egiten. Bere azken lanetako batean, esate baterako, hiru idazleren heriotzako orduaz idazten du –Thomas De Quincey, John Keats, Marcel Schwob–, eta aipatzekoa da zer azpimarratzen duen Keats poetari buruz: *Bakardadeari* izenburuko poema argitaratua zuela *Examinerr*en, hogeitun urte zituenean. Oso kontakizun laburrak dira, heriotzaren orduan fokua jartzen dutenak.

Jaeggyk heriotzari buruzko nolabaiteko obsesioa bizi duela dirudi, eta hori nabaria baldin bada bere obran zehar, are argiago gelditzen da *Proleterkan*, gaur arte berak idatzitako azken nobelan, irakurleak esku artean duen honexetan.

Proleterka itsas bidaia baten kontakizuna da, baina lehenbiziko lerroak honako hauek dira: «Urte asko joan dira, eta gaur goizean desira bat sortu zait ustekabeen: aitaren errautsak eduki nahiko nituzke». Aitaren errautsak. Une bateko desioa. Eta horrek gogora ekartzen dio aitak nola eraman zuen itsas bidaia batean, *Proleterka* izeneko ontzian:

«Gutxi ezagutzen nuen aita. Behin, Pazko garaiko oporretan, kruzero batera eraman ninduen. Itsasontzia Veneziako portuan zegoen. *Proleterka* zuen izena. *Proletarioa*» (19 orrialdea).

Eta aurreraxeago:

«*Proleterka* hitza etorri zait burura, itsasontzi jugoslaviarraren izena. Badira itsasontzien izen ederragoak. Esate baterako, *Menderaezina*, Billy Budd urkatu zuten ontzia» (22 orrialdea).

Izen bitxia itsasontzi batentzat, eta batez ere oporraldiko bidaia batez ari bagara. Baina zer ekarriko gogora izen horrek, eta beste izen bat, non eta norbait *urkatu* baitzuten. Holako kontraesanak azpimarratzea gogoko du Jaeggyk. Haren liburuen izenburuei errepaso bat emanez gero, goian aipatutako hori bezalako paradoxak aurkituko ditugu: *Le estatue d'acqua* (zurruntasuna eta iraupena iradokitzen duen «estatua» hitza –harrizkoa edo gai sendo batezkoa izan ohi dena– urari lotua), *I beati anni del castigo* (zorion-urteak hain zuzen ere zigorrari lotuak), edo *La paura del cielo* (zeruaren/zeruko beldurra).

*Proleterka*ren lehenbiziko orrialdeetatik erreferentzia literario esanguratsuak agertzen zaizkigu. Ontziaren izenari buruzko argibideak ematerakoan, Billy Budd etortzen zaio gogora, eta Melvilleren *Billy Bud marinela*² ontziaren izena, *Menderaezina* (gero Melvillek berak *Bellypotent* bihurtua, antza).

Geroxeago, beste aipamen esanguratsu bat egingo du: Martin Eden, Jack Londonen izen bereko nobelako pertsonaia nagusia. Eta ez da kasualitatezkoa. Izan ere, Martin Eden XX. mendearen hasieran Oaklanden bizi den proletario errukarri bat da, gora egin nahi duena

2 *Benito Cereno/ Billy Budd, marinela*, Herman Melville, Literatura Unibertsala, Alberdania-Erein-Igela, 2012.

autodidakta gisa bere buruaren hezkuntzan gogor saiatuz, literatur elitera iristeko esperantzarekin, horrela Ruth Morse, familia oneko neska, bereganatuko duelakoan. Martin Eden marinel eskolagabe bat da, langile-familia batekoa, eta Ruthen familia, berriz, burgesa, eta bien ezkontza ezinezkoa da behekoa goikoaren mailara iritsi ezean.

Hor ikusten dugu nola kontrajarri nahi dituen *Proleterkan* egindako kuzeroa beste bi pertsonaia itsastar mitikoen atarramentuarekin: proletario benetakoak aurkezten zaizkigu, eta, itsasontzian baldin badabiltza, ez da inondik ere atsegin-bidaia bat.

Aipatzekoa da zer dioen narratzaileak aitarengandiko urruntasuna azpimarratzeko: «Aita baino askoz hobeki ezagutzen dut Billy Budd». Beraz, Melvilleren adimenak asmatutako pertsonaia bat –liburu batetik haratago bizirik ez duena– hurbilagokotzat du aita baino.

Baina ez da hori bakarra. Bestela ere urruntasun hori azpimarratzen da alabak aitaz hitz egitean batzuetan «aita» hitza erabiltzean, eta beste batzuetan, berriz, haren bataioko izena, «Johannes», aitarekiko harremana beste edozeinekikoa balitz bezala, aita beste edozein 3. pertsona balitz bezala. Nobelaren bukaeran jakingo dugu zergatik egon litekeen justifikatua jokabide bitxi hori.

Bai, narrazio gisa bitxi samarra da *Proleterka*, oroi-menak lausotzen hasteko aski denbora izan duenean kontalariak oso dosi txikietan aletua. Kontalariak narrazioa burutzean berrogeita hamar urte inguru dituela jakin

ahal izango dugu, eta itsas bidaia hori bere nerabeza-roan egin zuela. Horregatik, zerbait azpimarratzekotan, kontakizunaren lausotasuna eta pixkanakako argitzea aipatu beharko genituzke. Itsas bidaia bat da, baina badirudi ontzi hori laino lodi batez inguratuta doala, ontzia ez ezik bidaian doazen guztiak biltzen dituen laino lodi batez. Lausotasun hori argituko da, hala ere, liburuaren bukaeran.

Horrekin batera, nabarmentzekoa da narratzaileak heriotzarekiko eta suizidioarekiko erakusten duen obsesioa:

«Ongi dakit nahi dudan guztia egin dezakedala. Baita Johannes [aita] hil ere. Baita neure burua hil ere. Gure etxea suizida-familia bat da. Suizidagaiz betea. Ahaideok denbora pixka bat elkarrekin pasatzeko aukera izan dugun bakanetan, gutako bakoitzak suizidioaz baizik ez genuen jakin-minik erakusten» (73 orrialdea).

Eta aurreraxeago:

«Hiletaren bazkarian ohiko samarra izaten zen bakarren batek bere suizidio-saio huts egina kontatzea. Haietako asko luze bizi izan ziren» (73 orrialdea).

Nabarmena da liburuan *heriotza*, *suizidioa*, *errautsak*, *beila-gela*, *hilerri*, *urrelili* (krisantemoa), *hilobi*, *hil* hitzek hartzen duten nagusitasuna. Hala ere, esan beharra dago zalapartarik gabe aipatzen direla, espanturik gabe, hoztasunez, ia isilean, Jaeggyrentzat, ikusi dugun bezala, isiltasuna balio handietako bat dela baitirudi.

Bidaia inizatiko baten narrazioa ere bada *Proleterka*, itsasontzian doan neskaren lehen sexu-esperientziak azalduko zaizkigu, horiek ere bitxi samarrak, kamaroteko giro itogarrian eta modu bortitz samarrean –ez fisikoki, baina bai afektu aldetik– marinel ordu arte ezezagunekin gauzatuak. Hor ere, hoztasuna nagusi, liburuan ageri diren harreman guztietan nabarmena den hotza. Baina ez dago kexurik, ez higuinik, ez negarririk: gauzak «diren bezala» onartze moduko etsipen bat baizik.

Eros eta *Thanatos*, beraz: gizakiaren mundua gobernatzen duten bi indarrak, «eroen ontzia» bere noraezean daramaten bi arraunak. Horretara murrizten du emakume narratzaileak bizitza. Ez dago aitaren bilaketarik, ez aita hil beharrik: bizia berez doa, eroen itsasontzia baitlitzan, portu batetik bestera, geldialdi laburrak eginez han eta hemen, azken portura iritsi arte.

Xabier Olarra
2018ko otsailaren 22a

FLEUR JAEGGY



Proleterka

URTE ASKO JOAN DIRA, eta gaur goizean desira bat sortu zait ustekabeen: aitaren errautsak eduki nahiko nituzke.

Errausketaren ondoren, suak erre ez zuen objektu txiki bat bidali zidaten. Iltze bat. Bere hartan itzuli zidaten. Orduan neure buruari galdetu diot benetan utzi ote zuten trajearen sakelan. *Johanneseekin batera erre behar da*, esan nien errausketa-labeko langileei. Ez zuten sakelatik atera behar. Eskuetan jarriz gero, gehiegi ikusiko zen. Gaur errautsak eduki nahiko nituzke. Besteak bezalako errauts-kutxa bat. Izena xaffa batean idatzita. Soldaduen xaffen modukoa, halako zerbait. Zergatik ez zitzaidan bururatuko orduan errautsak eskatzea?

Garai hartan ez nuen hildakoengan pentsatzen. Hildakoak berandu etortzen zaizkigu bisitan. Harrapakin bihurtu garela jabetu eta ehizan ateratzeko garaia dela ikusten dutenean deitzen digute. Johannes hil zenean, ez nuen uste benetan hila zenik. Hiletetan izan nintzen. Besterik ez. Hileta-ospakizunak amaitu, eta berehala egin nuen alde. Zerua garbi zegoen, amaitua zen dena. Gerda andereñoa arduratu zen xehetasun guztiez. Esker-rak ematen dizkiot horregatik. Hitzordua hartu zidan ile-apaindegian. Traje beltz bat eskuratu zidan. Traje xumea. Zorrotz-zorrotz bete zituen Johannesen nahi guztiak.

Aita leku hotz batean ikusi nuen azkeneko aldiz. Agurtu nuen. Nire ondoan Gerda andereñoa zegoen. Haren beharra nuen gauza guztietarako. Ez nekien zer egin behar zen norbait hiltzen zenean. Gerda andereñoak zehatz-mehatz zekizkien bete beharreko guztiak. Eraginkorra da, isila, tristea eta herabea. Aizkorak egurrean bezala egiten du aurrera lutoaren meandroetan barrena. Badaki erabakiak hartzen, ez da duda-mudan ibiltzen. Arras adeitsua izan zen. Ezin izan nuen tristezia pixka bat ere sentitu. Berak hartu zuen tristezia guztia. Edonola ere, den-dena emanen nion, tristezia alegia. Niri ez zitzaidan batere gelditzen.

Esan nion bakarrik egon nahi nuela une batez. Minutu bakar batzuk. Beila-gela hotz-hotza zegoen. Minutu gutxi horietan, iltzea sartu nuen Johannesen traje grisaren sakelari. Ez nion begiratu nahi. Haren aurpegia nire buruan dago, nire begietan. Ez dut hari begiratzeko premiarik. Aldiz, begiratu nion. Adi begiratu nion ikusteko, eta ikasteko, ba ote zuen sufrimenduaren zantzurik. Eta gaizki egin nuen. Zeren, halako arretaz begiratuta, Johannesen aurpegiak ihes egin zidan. Haren fisionomia ahantzi nuen, haren benetako aurpegia, betikoa.

Gerda andereñoa bila etorri zitzaidan. Saiatu nintzen Johannesi bekokian musu ematen. Andereñoak nazka keinu bat egin zuen. Ez zidan musu ematen utzi. Erabat ustekabekoa izan da gaur goizeko desira hori, Johannesen errautsak eduki nahia. Orain joan egin zait.

GUTXI EZAGUTZEN NUEN AITA. Behin, Pazko garaiko oporretan, kruzero batera eraman ninduen. Itsasontzia Veneziako portuan zegoen. *Proleterka* zuen izena. *Proletarioa*. Urte askoan desfile baterako elkartzan ginen. Biok hartzen genuen parte. Elkarrekin desfilatzen genuen aintzira baten ondoko hiri bateko kaleetan barrena. Johannesek, hiru adarreko kapela buruan. Nik, *tracht* jantzi tipikoarekin eta parpaila zuriko azpildurako txano beltzarekin. Txarolezko zapata beltzak, grosgrainezko belarri eta guzti. Zetazko mandarra soineko gorriaren gainean, eta kolore gorriaren atzean ubel iluna zelatan. Eta damasko-antzeko zetazko gerruntzea. Plaza batean, egur pila baten gainean, panpina bat erretzen zuten: *Böög*. Gizon batzuk, zaldi gainean, lauhazkan ibiltzen dira suaren inguruan. Danborrek arrada egiten dute. Zutoihalak gora. Adio esaten zioten neguari. Nik sentitzen nuen sekula eduki gabeko zerbaiti esaten niola adio. Sugarrek erakartzen ninduten. Denbora luzea joan da ordutik.

Aita, Johannes H., ermandade bateko kidea zen, *Zunft* batekoa. Ikasle garaian sartu zen. Idazki bat egin zuen: *Zer egin zuen eta zer egin zezakeen Ermandadeak gerra garaian*. Johannesen ermandadea 1336. urtean sortua zen.

Aurreko gauean haurren dantzaldia izaten zen. Traje tipikoz eta irribarrez lepo beteriko areto handi bat. Hura guztia noiz bukatuko zain egoten nintzen. Johannes ere bai agian. Ez zitzaizkidan dantzaldiak gustatzen. Eta jantzia kendu nahi nuen. Segizioan parte hartu nuen lehenbiziko aldian (oraindik eskolan hasi gabea nintzen) esku-aulki urdin batean sartu ninduten. Leihatilatxotik agur egiten nien espaloian segizioari begira zeuden beste haurrei. Garraiatzaileek lurrean utzi nindutenean, atea ireki, eta alde egin nuen. Ez nuen ihes egiteko asmorik. Ez zen matxinatzeko gogoia, sen hutsa baizik. Ezezagun nuen horrekiko erakarpena. Orduak eman nituen hirian barna batera eta bestera. Leher eginda amaitu nuen arte. Poliziak aurkitu ninduen. Eta nire legezko jabearengana eramanez ninduten: Johannesengana. Disgustua izan zen niretzat. Egoera ikusita, nahiko mugatua zen aita-alabok elkar hobeki ezagutzeko aukera. Begiratu eta isilik egon. Bata bestearen ondoan ibili segizioan. Hitzik ez elkarri. Aitak nekez jarraitzen dio martxen soinuaren erritmoari. Bi itzal. Bata, motel, ahalegin nabarian. Bestea, urdu-riago. Lauko ilarak osatuta egiten dute aurrera. Haien ondoan bikote bat doa; gizonak uniforme militarra darama jantzita; emakumeak, jantzi tradizionala. Erritmoa jarraitzen dute, hotsandiz ibiltzen dira, harro, burua ten- te. Gauaz, batzuetan, betazalak itxita, su hartzen ari den panpinaren irudia itzultzen zitzaidan. Danbor-arrada militarrek gero eta militarrago, hilondoko soinuak. Bi egun geroago, Johannes hotel bateko gela batean utzi nuen. Iritsia zen nire bisitaldiaren bukaera.

Proleterka

PROLETERKA JOHANNESEN ERMANDADE bereko jaun batzuek pleitatu zuten, apirilean hirian desfilatzen zutenek. Horiek izanen ziren gure bidaideak. Aita eta biok trenez abiatu ginen Veneziarantz. Bagoia hutsik zegoen. Ordutik aurrera Johannesekin egonen nintzen, aitarekin. Oraindik ez ditu hirurogeita hamar urte egin. Ile zuria du, leuna, erretena egina. Begi argi eta hotzak, itxuratiak. Hotzetako haur-alegia batean bezala. Neguko begiak. Kapritxo erromantikoaren zantzu pixka bat antzematen zaio. Irisak, berde eta zurbilak, gardenak, otzantasuna ere pizten dutenak. Begiradaren sendotasuna falta zaie ia. Belaunaldiz belaunaldi jasotako anomalia bat balitz bezala. Johannesek anaia bikia zuen, begiak berdintsuak zituena. Anaiaren begiak betazalen atzean ezkutaturik egoten ziren gehienetan. Orduak ematen zituen lorategi batean. Aulki gurgildun batean eserita. Ozta-ozta esaten zuen: «*Es ist kalt*», hotz egiten du. Esaldiaren doinuarekin bi ideia erakusten zituen: bazekiela hotza Jainkoak ezarritako zerbait zela, eta egiaztapen mundutar bat, hotza iragankorra zela alegia. Horrelakoa zen anaiaren gaixotasuna. Garai hartan, loaren gaixotasuna esaten zioten.

KONPARTIMENTUAN Johannes egunkaria irakurtzen ari da. Luze ari da irakurtzen. Beharbada ez daki niri zer esan. Egunkariari eusten dioten atzamarrei begira nago, eta zapatei. Elkarrizketarako gai baten bila ari naiz.

Ez aurkitzen, ordea. *Proleterka* hitza etorri zait burura, itsasontzi jugoslaviarraren izena. Badira itsasontzien izen ederragoak. Esate baterako, *Menderaezina*, Billy Budd urkatu zuten ontzia. Gogoan duzue kapilauak kateatuta zegoen marinelari egindako bisita, heriotzaren ideia iradokitzekoa? Hona Billy Budden azken hitzak: «Jainkoak bedeinka dezala Vere kapitaina!». Hiltzeko agindua eman zuena bedeinkatu zuen. Borreroa bedeinkatu zuen. Billy Buddi buruz hitz egin nahiko nizueke, masta batean altxatutako historia labur hau kontatu beharrean, haize kontra balantzaka baitabil ezerezaren mende. Billy Budd. Haren irudia ikusten dut paisaiak aurrera egiten duen bitartean, Johannesen ondoan nagoela orduak aurrera egiten duten bitartean. Billy Budden aita nor zen ez da gauza jakina, non jaio zen ere ez. Zetaz forratutako saskitxo polit baten barrenean aurkitu zuten. Aita baino askoz hobeki ezagutzen dut Billy Budd. «Iritsi gara», esan du Johannesek. Ez daramagu maletarik. Itsasontzian daude, *Proleterkan*.

Aita-alabek *vaporetto*a hartu dute San Marko plazaraino. Alaba haratago begira dago denbora guztian, itsasontzia ikusi nahi du. Venezia agertuz eta desagertuz doa. Riva degli Schiavonitik barrena doaz. Ezinegonak hartu du alaba. Johannes motel dabil. Elbarritasun bat du oinean. Zapata altuak ditu, orkatilak tapatzen dizkietenak.

Horrela jaio zela uste nuen, beti izan zituela ibiltzeko zailtasunak. Baina kartzinoma baten ondorioa izan zen. Haur bat jaiotzen denean oparitu ohi den album

haietako batean irakurri nuen. Bertan jasotzen dira, ia egunez egun, bizitzaren lehenbiziko urteak, lehenbiziko hilabeteak. Johannesek idatzi zuen alaba ospitalera joan zitzaiola bisitan hemezortzi hilabete nituela. Batek bere bizitzaren lehenbiziko hilabetei buruzko informaziorik nahi izanez gero, album hori begiratu besterik ez du egin behar. Froga bat da. Existentiaren berrespena. Johannesek hitz gutxitan jasotzen zuen alabak egiten zuena, nora eraman zuten, haren osasun egoera. Esaldi laburrak, iruzkinik gabeak. Galdetegi bati erantzuten ariko balitzaio bezala. Ez zegoen iritzirik, ez sentimendurik. Bizitza laburtua, bizitzarik izanen ez balitz bezala ia. Johannesen oharrak: Alabak ez du inoiz negarrik egin; ez du kasketarik izan; egoki jokatzeko du. Haurtzaro ego-kia. Axalekoa da dena. Berari buruz, Johannesi buruz, bi ohar. Bihotzeko txiki bat eta kartzinoma. *Alabak bi urte dituenean*, idatzi du Johannesek, aitona hil da (aitonaren izen-deiturak idatzi ditu). Jende asko errausketan. Alabak adeitsu jokatu du, eta den-dena deskubritu du. Johannesek ez du idatzi «ulertu», baizik eta «deskubritu». Beraz, gizonak erreparatu egiten dio bere alabari. Alabak, Johannesen arabera, bi urte dituenean deskubritu du zer den hiltzea. Benetan atsegin eta gizalegez jokatu zuen neska txiki horrek aitonaren heriotzaren aurrean. Agian, ordurako Johannesek gogoan zerabilen bere heriotza, eta espero zuen alaba jende guztiarekin adeitsua izatea. Munduarekin adeitsua izatea. Minarekin. Oraindik txikia zelarik, Johannesengandik bereizi behar izan zuen. Gurasoek seme-alabak abandonatzen

dituztenean, hurrek haiekiko interesa galtzen dute. Ez dira sentimentalak. Pasionalak dira, eta hotzak. Nolabait, ume batzuek gauzak balira bezala abandonatzen dituzte afektuak eta sentimenduak. Deblauki, tristeziarik gabe. Arrotz bilakatzen dira. Batzuetan etsai ere bai. Eta, harrezkeroztik ez dira abandonaturik sentitzen; beren buruan, haiek dira ospa egin dutenak. Eta alde egiten dute. Mundu ilun, fantastiko eta ziztrin baterantz. Eta, hala ere, batzuetan alaitasuna agertzen dute, harro. Funanbulisten ariketa batean bezala. Gurasoak ez dira beharrezkoak. Gauza gutxi dira beharrezkoak. Haur batzuek beren burua gobernatzen dute. Bihotza, ezin ustelduzko kristala. Itxurak egiten ikasten dute. Eta itxurakeria bilakatzen da bizitzaren alderdirik aktiboena, errealena, ametsak bezain erakargarria. Egiatzat jotzen dugun horren lekua hartzen du. Beharbada hau besterik ez da: haur batzuek axolagabetasunaren dohaina dute.

AITA-ALABAK itsasontziaren aurrean daude. Ontzi militarra ematen du. Izar gorriaren distira ikusten da tximinian. Berehala ikusi dut *Proleterka* dioen inskripzioa. Belztua, herdoil orbanekin, ahantzia. Inskripzio nabarmena. Iluntzen ari du. Ontzia handia da, eta eguzkia ezkututzen du, uretara erortzear baita. Iluna da ontzia, galipota eta misterioa. Onik atera izan da egurats zabalean, naufragioetan, gotorleku gisara eraikitako itsasontzi kortsarioa. Eskailerak igo

Proleterka

ditugu. Ofizialak daude gure esperoan. Azkenak gara. Johannes ederki kostata igo da, ofizial batek lagundu dio. Kamarotea erakutsi digute. Txikia. Han egin beharko dut lo Johannesekin. Bi ohe, bata bestearen gainean. Nik goikoa hartu beharko dut. *Proleterka* arratsaldeko seietan itsasoratuko da. Emeki doa aurrera ur azalean. Soinu lakar bat aditu da abiatu aitzin. Adio-soinu bat. Ez dago atzera egiterik. Idi-begitik begiratu dut. Eta neure buruari galdeka ari naiz nola aterako naizen, nola sartuko naizen itsasora, baldin eta Martin Eden bezala joan nahiko banu handik.

ARROPAZ ALDATU NAIZ. Hemendik ordubetera jantokian. Bidaiariak, ontziaren bizkarrean, ilunabarrari beha. Ezin dute galdu. Johannes ere ilunabarrari begira dago. Ordurako ez dago batere argirik. Iluntasuna dago, hasi da bidaia. Lehenbiziko ilunabarraren ondotik, beste batzuk etorriko dira, hamalau egunez. Ermandadekoak sinetsiak daude ahalik hobekiena antolatu dutela dena. Baita baldintza meteorologikoak ere. Marinel batek jantokira sartzera gonbidatu ditu jaun-andreak. Bata besteari segika, ia isilik, bidaiariak ilaran. Aita eta biok azkenak gara berriz. Txoko batean dugu mahaia. Johannesek menua irakurri, eta ardoa hautatu du. Bere lagunak agurtu ditu, nik irriño bat egin diet. Bero umela. Lasai doa aurrera ontzia. Kristalezko lanparak kulunka txikia egiten du. Pendulu baten gisan, baina bare-bare,

inertziaren eraginez. Johannesek arropa iluna jantzi du. Ezin dotoreago. Ia ez diogu hitzik egin elkarri. Andreek gau-jantziak dituzte soinean, sobera nabarmentzen ez diren eskote batzuk ere badira. Kulunka barea sumatzen da jantokian, kulunka etengabea, iraunkorra. Harat-honat lasai gaiztoa, itsasoko olatuek sehaska-kanta bat abestuko balute bezala lozorroak bidaiariak harrapatu baino lehenago. Argi-armiarmak biziago egiten du kulunka. Bidaiariengana proiektatzen ditu bere argiak, eta, gero, itzalean uzten ditu, gerora biziago itzultzeko. Jangelak gora egiten du, eta gero behera. Mahai gaineko loreek batera eta bestera egiten dute, ez denbora tarte berdinetan baina. Irrist egiten dute, eta gero beren tokira itzuli. Johannesek beste nonbait du burua, bere baitan bildua dago. Postrea, bizkotxo bustia. Postrearekin batera, zakartu da itsasoaren indarra. Jaikitzeke baimena eskatu diot Johannesi. Kanpoan, haize amorratua dabil. Itzal batzuk ezin biziago mugitzen dira. Marinelak dira. Gaueko bakardade goitarra arnasten ari naiz. Egurats zabala. Baita arriskua ere. Orduan ez dut Johannes gogoan. Johannesi besoa eskaini eta lagundu beharra. Deusek ere ez du axola une horretan.

Ezin zutik egon, eta galdu dut konortea. Handik minutu gutxira, marinel batek ni hartu, eta gure kamaroteko ate aurrean utzi nau. Eskifaiak gelan gelditzeko agindua zien bidaiari guztiei. Bukatu ahal izan dute bizkotxo bustia.

PROLETERKAK IBILBIDEA ALDATU DU. Zara aldera doa. Marinel bat, hartu nauen marinel bera beharbada, larri zauritu da gauean. Biharamun goizean, ohatila batean zegoen etzanik. Aurpegia laztandu diot, eskua estutu. Ohatila txalupa motordun batera jaitsi dute. Nik ere utzi nahi nuke ontzia. Komandanteak agur militarra egin dio.

Bidaiariak ongi daude. Jantokian gaude, gosaltzeko. Bi egun itsasoan Greziara ailegatu baino lehen. Gaur dena lasai. Ez dut ikusi Johannes, desagertu balitz bezala da. Denboralea bezala. Zenbait bidaiari etzanda daude *chaise-longue*etan. Baita ni ere. Ez dut deus buruan. Ezdeusa da nire pentsamenduen gaia. Izakiak, ahots autonomoak eta hilobitik ateratako oroitzapenak jarraitzen zaizkie uraren plista-plasta eta astinduei. Ezdeusa ez dago hutsik. Hegaka doan harrapari baten atzaparrak nola, buruan deus ez dugula uste dugunean, halaxe erortzen dira pentsamenduak geure gogamenera. Azaldu da Johannes. Irribarre zintzo eta goibela egin dit. Ongi ote naizen galdetu dit, *zufrieden* ote nagoen. Gure obsesioa hori balitz bezala, aitarena eta alabarena. Triste ez egotea, arrazoirik gabe markatu gaituen tristezia ezkutatzea. Harentzat inportantea da bidaia. Abiatu aurretik, nora joan berdin zitzaidala pentsatuen. Greziarako bidaia nire hezkuntzaren parte zen. Gure lehenbiziko bidaia da, eta azkena ematen du. Johannes, sinesgaitza bada ere, pertsona ezezaguna da niretzat. Nire aita. Konfiantzarik batere ez dago. Hala

ere, gure existentzia baino lehenagoko lotura bat bada. Ezagupen bat erabateko arrotasunaren erdian.

Ohiko orduan jantokian gaude. Gelara jaitsi naiz arropaz aldatzeko. Soineko gutxi ditut, berdinak ia. Biluzten al da Johannes ohera sartu baino lehen? Ez dut sekula ikusi bainujantzian. Ez dizkiot sekula ikusi zangoak. Gau bat pasatu da, ez dut erreparatu han zenik ere. Gorputzaren ezeztatzea. Bigarren eguna da, eta erre-pikatu da dena. Johannesek bere lagunak agurtu ditu. Agurtu ditut nik ere. Neskatoa nintzenetik, Johannesek bere lagunartean sartu ninduen. Haiek adiskidearen alaba bakarra goitik behera aztertu zuten. Batzuetan, umeek kondizio sozialaren premonizio ahalmena dute. Itxurei erreparatzekoa. Ongi onartua zaren ala ez sumartzekoa. Ni ez nintzen ongi onartua, baina haiek aitaren adiskideak ziren. Johannes, nolabait, gizon bakartia izanagatik, haien munduaren parte zen. Haren alaba ez. Nire aita, Johannes, sortzetik zen haien munduaren parte, kondizio sozialagatik. Aitaren adiskidea eta haren familia nire epaile izan ditut haurtzaroan. Eta haien etxea ere bai. Eta leihoak. Gauzak, epaile. Haien etxe aberatsa. Beharbada ez nituen maite aita eta biok beren etxeetara gonbidatzen gintuzten aberats haiek. Ederki dakite nire aita aberatsa izan zela haiek bezala. Nik banekien Johannes aberatsa izana zela. Haiek bezala. Orain ez. Haiek jende apala ziren, jende xehea, hots, den-dena duzuneko jokabide hori zuten. Jende barkabera. Ingu-ruko guztia erretzen duen barkaberatasun hori. Umetan, horrela pentsatzen nuen aztertzen nituenean. Aztertu

eta isilik egon. Johannesen alaba ez zen neska erraza, ez barkabera ez xumea. Ez zuen haien nagusi-xumetasuna, bere aitaren adiskide handiaren otzantasun harroputza. «Marinel hauekin guztiokin, erne begiratu beharko duzu alaba, babestu». Aitaren lagunak begiratu goratu du urrezko armazoiko ilargi erdiko betaurrekoen gainetik. Eta lagunaren alabari behatu dio. Lagunak ile zuria du, usua, dirdaitsua. Nagusi kutsua, beti prest dagoenarena entzuteko, ez ordea amore emateko. Begitarte gorritua du. Andreak denari egin dio uko, baita bere buruari ere. Mokoka jan du bere gorputza, eta hortz luzeak ageri zaizkio erakusten dituenean. Idorra da, puritana, zigortzailea. Berak begiratu zion lehenbiziko aldiz mespretxuaren lentearekin Johannesen alabari. Arras adeitsu da, ezin adeitsuagoa. Adatsa pilota batean bildua, lepondo gaineko moto batean. Harraparien karitatez umeldutako begiak ditu. Beti gizabidetsu. Kondenatzen gaituena ulerbera izaten da. Bera, halaxe. Ulertzen die bekatariei. Bekatarien kontrako sumin basatia, bridatua, eztandarik eta erremediorik gabea. Neurritz gorako ulerberatasun mingarria. Gizadiaren gaitzek laidoztatua sentitzen da. Eta laidoa begiramen arranditsu batean du hezurmamiturik. Asturu gaitzaren, lantua eta onarpenaren ahots tonuan. Johannesi, hain gizon bakarti eta zaharrari, alaba bat izateaz halako poza erakusten baitu, aditzera ematen dio poz hori ilusio bat besterik ez dela. Arriskutsua da poz hori, erauzi egin beharra dago. Poza sufrimendu bilakatu beharra dago. Andrea

Johannesen erruki da. Alabak, haien etxean denean, zera dio: «Goazen hemendik».

Aitaren adiskide horiek bildumazaleak ere bada. Bazkaltzera gonbidatzen gintuztenean, andrea mahaiburu egoten zen, pareta aldera, margolan baten azpian. Betazalak beheraturik, eskuak bildu eta ahapeka mintzatzen zen. Johannesen alabak ez du otoitz egiten. Ez diot eskerrik eman Jainkoari jaun-andre haiek emandako janariagatik. Ez dizut eskerrik ematen, diot neure artean. Zintzoen janaria hartzen hasi baino lehen, andrearen bisaia kamustasun belo batek estali du. Hori du bere otoitza. Andreak aurpegiera goibel eta zurruna duela ematen dizkio eskerrak Jaunari. Jainkoarengana hurbilduz izoztu egiten zaio odola, zurbiltasuna dario aurpegian. Esker-ematea barkamena eskatzea balitz bezala, *mea culpa* bat, jateko zerbait dagoelako.

Aldiro, eskuak kuzkur eta otoizka andreak eskerrek noiz emanen egoten nintzen zain. Haren keinu guztiez gozatzen dut. Eta postrearen ondoren, hark berriz Jaunari eskerrak emateko zain egoten nintzen. Gero, egongelara joaten da. Margolan gehiago. Bildumazaleek nonahi dituzte margolanak. Ez diete paretei arnasa hartzen uzten. Besaulkiak. Aintziraren ikuspegia. Belardiarena. Bi adiskideak solasean ari dira. Batak irri egiten du, besteak ez hainbeste. Neskame espainiarra pasatu denean, Johannesek eskupekoa eman dio. Hala egiten zen. Eta *pralineak* andreari. «Ez ekarri deus andreari», esan diot Johannesi. Adiskideak, nire aitari hitz egiten dionean, hungariarra dirudien izen bat erabiltzen

du. Aitari izen hori esanez deitu nahi izan diodanean, ez erabiltzeko eskatu dit. Nonbait bere lagunak baizik ez du hari horrela deitzeko eskubidea. Ikasle zirenetik. Iniziatuen arteko kontu bat. Adiskideak ere bazuen bere izena, baina bere fabrikaren salgaiarekin zuen zerikusia. Ordurako, Johannes ez zen fabrikaren jabe, eta izengoiti bat besterik ez zuen. Beste deus ez duenaren izengoiti bat. Alaba bat bai, baina hori ez da ondasun bat. Johannesek eta biok ez dugu besterik. Aitaren adiskide hoberenak badaki hori. Haren andreak ere bai: Jainkoak ematen du, Jainkoak kentzen. Haiei ez, ordea. Aski ongi nekien ni hartzea onartu zuen andre baten ardurapean utzi nindutenez geroztik.